

225. zk.

Bigarren aroa

Martxoak 15
2014

Irungo
euskarazko
hamabostekaria

Irunero

Erreportajea

Topagunea: bazterketa egoeran daudenentzako zerbitzua.



Erreportajea

Gure Esku Dago dinamikak politikan herritarren parte-hartzea bultzatzen du



Mariñoko neskak, lehen lerroan

- 3 Maite Cruzado, Gizarte Ongizateko udal ordezkaria
- 6 Luis Tolosa arkitektoaren lana, Amaia KZn
- 8 Kirolak. Maialen Lopez, iraupen-eskiko Espainiako txapelduna
- 10 Gastronomia. Euskal sukaldaritzaren historia
- 11 Haurren Leihoa. Toki-Alai LH
- 12 Gazteen Lanak. Hirubide BHI
- 13 Teknologia tailerrak Irun Factoryn
- 14 Gazte Informazioa
- 15 Kultur agenda

www.irunero.com

Sar
zaitez
web orrian



 BAINU



Bainera kentzeko eta dutxa jartzeko

PROMOZIOA

200 €ko BEHERAPENA

Martxoan zehar DUTXA-PREST
jartzeko iragarki hau aurkezten baduzu

IRUN

Uranzu, 9
943 615 184
687 572 920

DONOSTIA


Zarautz

hirib., 86

943 561 652

bainu.irun@gmail.com

Asaba berrien baratzean



Xabier Kerexeta

Lizardi, Frantziatik Rimbaud ez baina Carrefour etorri duk hitaz galdezka. BABen eta Donibane Lohitzunen "ongi etorri" izkiriatu eta horrekin nahikoa euskaldundu omen denez, ezin Bidasoaz haraindi gehiago galdegin. Hire Gipuzkoan, berriz, letrero xumeagoak ere euskaratu ditik. Hartara, baratzean sartu zaik lapurretan. Jakin bazakiagu debalde emango hiokeela; baina hark lapurtzea nahiago. Eta hire baratze oparotik, hire barazki ezin goxoagoetatik zer hartuko eta ilarra bakararra hartu dik, ez besterik. Ilar bakararra ez, ilarra bakararra; alegia, fila única. Erre ke erre.

Bertatik bertara nahikoa sustoa hartu ez eta Jon Abrilek argazkia eta guzti erakusten digu txioka. Ai, apirileko lorea, urrea baino hobea; maiatzeko lorea, hutsa baino hobea. Gure amonia zenaren baratze esatera zaharrera joko al du frantses jatorriko

saltzaileak, zuzenduko al du hutsa, berandu bada berandu?

Donostiako auzo baten izena duen hipermerkatura joatea badugu, ordea. Barazkiak ez ezik, gure baserrietako behi eta ardien mama goxo zuria ere erosi ahal izango dugu. Eta ez nolana hiko abantailaz, gainera. Laktosalgikoa zarela? Ez kezkatu batere, hango gaztak, jogurtak, gurinak eta abarrak ez baitira esnekiak, "esne itxurako" baizik. Euskaldun huts izatearen abantaila, zeren eta erdaldun hutsa bazara, artikulu hau ez irakurtzeaz gain (ez da galera handiegia, egia osoa esatera), orduan bai, orduan lácteos baitituzu. Eta, seguruenik, erdaraz ere dakien euskalduna bazara, zer, kalterik egingo al dizu hango laktosak? Hobe ez jakitea.

Gure baratzea txikia da eta bertako pikuk hiru hosto baizik ez; maite dugu, halere. Rosalia de Castrok galegoz kantatzen zien bere asaben baratze xumeari eta bertako pikuei: hortiña que quero tanto / figueiriñas que prantei (...) hortiña que tanto amei.

Oraingoan, aldiz, hobe dugu katalanarekin bukatu; izan ere, "li diuen la flor del pèsol, de tan bonica que n'és": hain da neska ederra, ilar-lore deitzen dute. Sinesten ez badidazue, zoazte Eroskira:

guisantes/illarrek/pèsols/chícharos.

Irun atzo Irun gaur

Fermin Calbeton kalea atzo



IUA: 29198

Fermin Calbeton kalea gaur



Irunero

Erredakzioa eta maketazioa:

Ana Grijalba
agrijalba@irunero.com

Kirolak: Naiara Hernandez
Lekuona

Euskara zuzentzailea:
Xabier Kerexeta

Publizitatea:
Sonia Garcia Olazabal,
Amaia Terrazas

sgarcia@baseclick.es

Argitaratzailea:
Baseclick S.L.

ISSN: 1134-0606

Lege gordailua:
SS-230-94.

Maiatzaren Lehena, 23 -
20304 IRUN

Tel: 673 39 84 57

www.irunero.com

Fermin Calbeton y Blanchon Donostian jaio zen 1853an baina Irunen hazi eta bizitza guztian zehar lotura oso estua izan zuen gure hiriarekin. 1884an Kubako Gortetako diputatu aukeratua izan zen. Aurrerago, Egoitza Santuan Espainiako enbaxadore izan zen.

1910ean, alderdi Liberaleko kide zela, Sustapen Ministro izendatu zuten eta bere agintealdian Santiago zubia eraikitzeo baimena eman zen.

Gipuzkoarentzat eta herrirentzat ere autonomia handiagoa lortzearen egindako gestioa eskertuz, 1910ean Irungo Udalak Seme Kuttun deklarazioa eta kale bati bere izena jartzea erabaki zuen. Lehenago kale honek Travesía de las Escuelas deitzen zen.

1897an, bere interbentzioari esker, Udalari "Txit Gorena" titulua eman zitzaion. 1919an hil zen.

Mende batean zehar Vda. de A. Fernández aduana agentzia izan zen kale horretako erreferentzia. Andres Fernandezek ireki zuen 1891an. Lau urte beranduago jabea zendu eta haren alargunak, Josefina Urtizbereak, lekukoa hartu zuen. Handik aurrera enpresa zabaldu zen baita arrakasta handia ezagutu ere.

1912an Josefinaren seme Santiago agentzian sartu zenean Vda. de A. Fernández e hijo deitzen erabaki zuten. Urte luzez autoen inportazioa izan zen negozio nagusia. 1992an, Europako muga ekonomikoak desagertzearekin batera, itxi zen.

Iturriak: Jose Monjeren *Irungo kaleen izenak* eta Ana Galdosen *Josefina Urtizberera, Vda. de A. Fernández* lana, LUKTren 26. aldizkarian argitaratua.



“Irun aitzindari izan da planemendu urbanistikoan generoa kontuan hartzen”



“Egunero behar luke martxoaren 8a izan”. Hauxe aurtengo goiburua. Maite Cruzadoren lana hori da, hain zuzen ere: berdintasuna bultzatzea. Jarraian bere jardueraren zenbait nondik norako.

- Zein dira martxoaren 8an gogoratutako erronkak?

Urratsak eman dira, baina oraindik ibilbide luzea dugu aurrean, emakumeok gizonezkoekin batera jorratu behar duguna. Martxoaren 8aren kariaz gogoratu dugu krisiak emakumeak izugarri gehiago ukitzen dituela, politikan eta enpresa pribatuan zuzendaritza karguetara iristeko dagoen “kristalezko sabaia”, emakumeen aurkako indarkeriaren inguruko datu zirraragarriak ...

- Berdintasun planak Udalaren jardueraren oinarri dira. Zein da lantzen ari zaretenaren ardatza?

II. planaren ebaluazioa iaz egin zen eta emaitza oso ona izan zen. Lanarekin jarraitu behar zela uste genuen eta horregatik hirugarrena prestatzea erabaki zen. Arrazoietako bat da egoera aldatu dela eta krisiak emakumeak gogorrago jotzen dituela. Berdintasuna Udal arlo guztiak ukituko dituen zeharkako lana izatea nahi dugu. Plana landu dugunok pentsatzen

dugu berdintasunean heztea eta sentiberatze kanpainak inportanteak direla.

- Genero indarkeriak nolako pisua dauka?

Oso handia. Arazo larria da eta etenik gabe jarraitu behar da lanean. Ongizate arloan 2011n 83 emakume artatu genituen; 2012, 79, eta iaz, 68.

Udalak baliabideak ditu emakume hauei eta euren seme-alabei laguntzeko: harrerako etxebizitzak biktimentzat, diru laguntzak, arreta psikologikoa, informazio juridikoa eta laguntza programa.

Prebentzioaren alorrean autoestimatu tailerrak eta jabe-kuntza eskola antolatzen dira. Azken honetan iaz 20 pertsonak parte hartu zuten, eta aurtent, 104k.

Bestalde, martxoaren 8a eta azaroaren 25a direla eta, sentiberatasun-ekintzak aipatu behar dira. Azkenik, berdintasunaren inguruko gure web orriak gero eta bisita gehiago ditu; 8217ra iritsi gara.

- Berdintasun II. Planaren ebaluazioan, hobetzeko gaien artean, Alardearen inguruko

kontua ez dela jorratu aipatzen da. Zerbait aurreikusita dago?

Gai hori ez da lehenengo planean ez bigarrenean aipatzen. Udalaren azken pronuntziamentuan, zinegotzien gehiengoak onartuta, hiritarrei eskatzen zitzaizen Alardearen inguruko aukerekiko errespetua.

- Etxeko eta zaintza lanetan ardurakidetasuna berdintasunaren oinarrietako bat da. Hobera egin al da?

Emakumea da ardura horien zama handiena daramana. Alor hau ere Berdintasun Planak jasotzen du. Ez

Maite Cruzado, Irungo Udaleko Gizarte Ongizate Arloko ordezkaria



dugu etenik izan behar zeregin honetan. Hobera egin dugu, baina abortuaren inguruko lege proiektua bezalako neurriek kezkatzen naute.

- Hirigintza Plan Orokorren berrikuste prozesuan genero perspektiba jaso da. Zertan datza?

Irun aitzindari izan da ekimen hau gauzatzen. Oro har hiri guztiontzako hiri atseginagoa lortu nahi

da. Azken urteotan landu den Debekatutako Hiria mapa (emakumeak seguru sentitzen ez diren tokiak hobetzeko ekintzak) jasotzeaz harago, genero perspektiba hirigintza planifikaziora zabaltzen du. Ekimen pribatuko proiektuetan kontuan hartzeko gomendioak ere egiten dira; tartean, izkutuko txorrik gabeko etxeko atariak, haurkotxeak uzteko tokia...



**LANBIDE HEZIKETA ZIKLOAK
D EREDUAN (EUSKARAZ)
TOKI ONA BHI BERA - NAFARROA**

**MEKATRONIKA INDUSTRIALA
GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA**

**MANTENIMENDU ELEKTROMEKANIKOA
ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA**



AURREINSKRIPZIOAK APIRILAREN 7tik 15era

Telefona: 948 625 000

e-mail: lebera@educacion.navarra.es Web orria: <http://leestokiona.educacion.navarra.es>

“Hemen eskaintzen duguna denbora da”

Irungo jangela soziala ezaguna den arren, Topaguneko erabiltzaileen kopurua handitu egin da azken urteetan. Bertan, orientatze lanak egiteaz aparte, hainbat zerbitzu eskaintzen zaizkie bazterketa egoeran aurkitzen diren pertsonei.

Goizeko hamarrak. Ospitale zaharreko atzeko aldean kokatuta dagoen Topaguneko atean hogeitau bat pertsona itxoiak ari dira. Bakoitzak badaki nor iritsi den lehenago eta zein den bere txanda. Leyrek atea ireki eta denak barrura sartzen dira. Beraien atzetik Borja sartzen da, eta bertako guztiei izenez agurtu eta gero, galdera luzatzen du: “Nor izan da lehena? Badakizue, dutxa hartzeko, txandaka dela”. Bat hurbiltzen zaio eta Borjak xaboaia eta toaila bat ematen dizkio. Berehala pertsona multzoan ezaguna ez duen aurpegi bat ikusten du, eta izena galdetu ostean toaila eta xaboaia ematen dizkio baita ere.

2010. urtean Irungo Udalak jangela soziala eta topagunea martxan jarri zituen. Urte hartatik aurrera RAIS Euskadi gobernuz kanpoko erakundearen talde batek kudeatzen du zerbitzua. “Hasieran jangela zen gehien erabiltzen zena eta dudatan ginen ea topaguneko funtzionatuko zuen”, azaldu du Feli Goikoetxeak, Esku-hartze

Komunitarioaren Udal Arduradunak. Azken urteotan, aldiz, “kontrakoa” gertatzen ari da. Pasa den urtean jangelak 154 erabiltzaile izan zituen; Topaguneko, aldiz, 391.

Irungo Topaguneko lantaldea hiru teknikaririk osatzen dute; hau da, zerbitzu profesionala da eta ez borondatezko ereduaren oinarritua, “balio erantsia ematen diona”. Leyre García, Borja Gamarra eta Nadia Fabok osatzen dute taldea, egunero edonori laguntzeko eta orientatzeko prest.

Bakardadea

“Hona etortzen diren %90ek ordu asko ematen dute bakarrik, bakardadean, eta askorentzat Topagunea da besteekin erlazionatzeko duten leku bakarra”, dio Nadiak. Horrela, konpainia zerbitzua eurek egiteaz gain, Topaguneko klubak, gosaltzen duten lekuarena egiteko edo kartetan jolasteko helburua ere betetzen du.

Jangela erabiltzeko, Udaleko gizarte zerbitzuei txartel bat eskatu behar zaie; Topagunea erabiltzeko, ordea, ez. Aski da bertara

joatea. Han, Leyre, Borja edo Nadiarekin elkarrizketa bat izatea da lehenengo pausua, harrera-elkarrizketa deitzen dena. Jomuga, pertsona bakoitzaren beharrak zein diren identifikatzea. “Batuetan dirua eskatzen digute. Kasu horietan gizarte zerbitzuetara bideratzen ditugu; guk hemen eskaintzen duguna denbora da, haiekin egoteko denbora”.

Lortutako lehenengo informazio horretatik abiatuta, pertsonarekin ibilbide bat diseinatzen da, eta gaitasun beharrekiko helburu batzuk zehazten, sartuta dauden baztertze espial horretatik ateratzen. Helburu horietako bat, adibidez, “familiarekiko harremana hobetzea izan daiteke, askotan arlo hori konpontzeak osasun edo lan arloan ondorio onak eragiten ditu”. Baina emaitzak ez dira berehala lortzen; kasu bakoitzak bere denbora eskatzen du, “prozesuaren parte diren aurrerapen eta atzerapausuekin”. Hala ere, Nadiaren aburuz, egin beharrekiko ibilbidea adostuz eta gauzak argi



Borja Gamarra eta Leyre García.

Pasa den urtean jangelak 154 erabiltzaile izan zituen; Topaguneko, aldiz, 391

sartu www.txingudionline.com-en eta ezagutu hobeto zure hiria

Eneiza munduan, Kiplin, Desdi nueve metros, restapasaendo, La Baratus, Ocarri, Falso de cine, Historias del Bidasoa, Zuboga, Kiroan, Bidasoa, Real Unión, Txingudi al Habla, Ponte en forma, Eneiza munduan, Kiplin, Desdi nueve metros



IRUN HONDARRIBIA

 **txingudionline.com**

restapasaendo, La Baratus, Ocarri, Falso de cine, Historias del Bidasoa, Zuboga, Kiroan, Bidasoa, Real Unión, Txingudi al Habla, Ponte en forma, Eneiza munduan, Kiplin, Desdi nueve metros

berriak, erreportajeak, historia, kirolak, hurbiltasuna, eztabaidak

Zuboga, Kiroan, Bidasoa, Real Unión, Txingudi al Habla, Ponte en forma, Eneiza munduan, Kiplin, Desdi nueve metros, restapasaendo, La Baratus, Ocarri, Falso de cine, Historias del Bidasoa



Nadia Fabo eta Feli Goikoetxea.

izanda, normalean, ezarritako helburuak betetzen dira. Gainera, pertsona bakoitza nahi duen teknikoarenera joan daiteke. "Ez dugu bataren-gana edo bestea-rengana joatera behartzen, eroso sentitzen denarekin egoten da".

Orientatze lan horietaz aparte, zerbitzu desberdinak eskaintzen dira Topagunean: gizon eta emakumeentzako dutxak, higienerako produktuak, arropa garbitzeko eta lehortzeko makinak (xaboia barne), Internetera konektatutako ordenagailua, prentsa, doako telefono deiak... Honetaz gain, "nahi duenak gure helbidea eta telefono zenbakia eman ditzake harremanetarako, bereak izango balira bezala", azpimarratzen du Nadiak. Mesedegarria izan daiteke, adibidez, lan elkarrizketa batean harremanetarako datuak emateko garaian, edo curriculumean ipintzeko.

Zerbitzu hauek "helburu zehatzak" dituzte oinarrian, eta pertsona bakoitzaren "autonomia eta autoestima hobetzeko eta indartzeko asmoarekin" eskaintzen dira. Horrek esan nahi du ez zaiela dena eginda ematen: "Goizetan gosaltzeko behar duten guztia ematen diegu, baina beraiek dira gosaria antolatzeko arduradunak".

Giza berotasuna

Topaguneak eskaintzen dituen zerbitzu horietaz aparte, bertan etxeko goxotasuna ere nabarmena da. "Nor bait zure

izena jakitea oso garrantzitsua da, ohituta gauden gauza txiki bat da, baina hona hurbiltzen direnek asko estimatzen dutena", dio Nadia teknikariak. Etxean bezala, batzuek kartetan jolastu edo kafe baten inguruan hitz egiten duten bitartean, beste batek egunkaria irakurtzen du, edo patxada ederrean besaulkian eseri eta lo egoten. "Askok, nahiz eta ostatu batean gaua pasatzen duten, hemen erlaxatzeko aukera daukate".

Topagunea astelehenetik ostiralera 10:00etatik 13:00tara zabalik egoten da. Feli Goikoetxeak azaltzen duen bezala, Topagunearen filosofia "ez da pertsona baten ordu guztiak betetzea", baizik eta "jokabide autonomoa bultzatzea". Bere ustez Topagunera hurbiltzen direnek "ahalmen ikaragarria dute, eta gure lana makulua egitea da, euren ahalmen hori ikus dezaten eta kontura daitezten beraiek markatutako helburuak lor ditzaketela". Bide honetatik, beraiek direla euren bizitzaren jabe nabarmentzen du Nadiak, eta "lortutako arrakasten meritua pertsonarenak dira, eta ez profesionalarenak. Gu bakarrik haien ondoan gaude, ahal dugun heinean laguntzeko".

Informazio gehigarria:

Helbidea: Urdanibia Plaza, Ospitale Zaharreko eraikina.
Telefonoa: 943 01 45 76

Joseba Zubialde



Topagunea eta jangela soziala Ospitale Zaharrean daude.





Aldatu zure bainera dutxa batengatik

Berrikuntza txiki bat, egundoko aldaketa

Zure bainera egungo dutxa talde batengatik aldatzen dugu.
¡Guztia 2 egunetan!

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

Pelegrin de Urantz, 9 (Urdanibia plazaren ondoan) - 20304 Irun
943 615 184 - 687 572 920
 bainu.irun@gmail.com - www.bainu.eu
 Zarautz hiribidea, 86 - 20018 Donostia
943 561 652



Luis Tolosa arkitektoaren legatua, Amaian ikusgai

Luis Tolosa Amilibiak (Donostia, 1903 - Irun, 1956) hainbat eraikin proiektatu zituen, industriaren alorrekoak batez ere. Erakusketak maketak, marrazkiak eta argazkiak biltzen ditu, apirilaren 6ra arte ikusgai izango direnak.



Luis Tolosak bere aztarna utzi zuen Gipuzkoako industria arkitekturan batik bat. Pasaiaiko portuko eraikinak bere obra arrazionalistaren adierazle nagusien artean daude. Tolosak proiektatutako eraikin guztiak, ordea, beste batzuek sinatu zituzten, ez baitzuen Arkitektura Eskolaren titulu ofiziala.

Erakusketa honen oinarri den ikerketak Luis Tolosaren irudia dagokion lekuan kokatzen du arkitektura garaikidearen esparruan.

Aurkezpen ekitaldian Jose Antonio Santano Irungo alkateak arkitekto hau "gogoratzeko eta bere legatuari dagokion balioa emateko" garrantzitsua dela adierazi zuen. Egiletza argitzeko, haren artxibo pertsonala zehatz-mehatz aztertu da. Hartara, gakoa izan da Luis Tolosaren seme Juan Ignaciok eta bere emazte Rosa Mari Tellok dokumentu eta marrazki guztiekin egindako kontserbazio-lana. Halaber, oinarritzat izan da Pasaiaiko Portuko Agintaritzaren artxiboaren azterketa zorrotza.

Egilea nor zen segurtasunez jakitea zaila izateak azterlan zientifiko bat egitera bultzatu zuen Ana Azpiri Madrilgo Complu-

tenseko doktorea.

Juan Ignacio Tolosaren nahia bete du erakusketa honek. Emozioz azaldu zuen aitak "arte maitatzen" erakutsi ziola eta "haren belaunetan eserita" marrazten ikasi zuela.

Iñaki Goikoetxea Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialeko presidentek Tolosaren lanak "oso europarrak" direla nabarmendu zuen. "Cerámica de Oriokoa, adibidez, alemaniarra edo suediarra izan zitekeen". Elkargoko kide Lauren Etxeparek hiritarrak Amaia KZra joatera animatu zituen. "Erakusketa hau ederra da mundu guztia- rentzat, ez bakarrik aditu- entzat".



Ezkerretik eskuinera:
Fernando García Nieto erakusketaren koordinatzailea, **Iñaki Goikoetxea** Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialeko presidentea, **Juan Ignacio Tolosa**, **Jose Antonio Santano** Irungo alkatea, **Belén Sierra** Kultura Udal ordezkaria eta **Lauren Etxepare** arkitektoa.

Atzerrian dauden ondasun eta eskubideei buruz informatzeko obligazio berria

Zer aitortu behar da?:

1.- 2013ko abenduaren 31n 50.000 € baino gehiagoko diru-kontuak finantza erakundeetan. Eskuragarri egoteko ahalmen duen edozein.

2.- 2013ko abenduaren 31n guztira 50.000 € baino gehiago batzen duten balioak, eskubideak, aseguruak eta errentak, atzerrian gordailuan utzi, kudeatu edo lortutakoak.

3.- Guztira 50.000 € baino gehiagoko balioa duten ondasun higiezinak edo ondasun higiezin gainerako eskubideak.

4.- Banaka 50.000 € baino gehiagoko balioa duten ondasun higigarriak eta eskubideak. Eskudiruaren eta harri eta metal bitxien kasuan, ondasun kategoria horiek batera, 50.000 €ko kopurua gainditzen badute.

5.- Ondasun higigarriak eta eskubide matrikulatuak edo atzerriko erroldetan agertzen direnak, banaka 50.000 € baino gehiagoko balioa dutenak. 2., 3., 4. eta 5. kasuetan: Titular izatekoak eta halako izaera galdu dutenak daude behartuta. Ez daude erroldatutako ondasunak aitortzera behartuta, kontularitzan aintzat hartu badira.

Nork aitortu behar du?:

Gipuzkoan bizi diren subjektu pasiboek, pertsona fisikoek eta sozietateek, goian aipatutako ondasunen jabe izanez gero.

Egin ezean, nolako zehapena jasan genezake?:

720 eredia aurkeztea derrigorrezkoa da. Isuna 5.000 €koa da agertu gabe, zehaztu gabe, osatu gabe, faltsu edo oker dagoen datu bakoitzeko, eta gutxienekoa 10.000 €koa da.

- Jakitera eman ezean, PFEZ edo Sozietateen Zergarako, zuritu gabeko ondare-irabazpidetzat joko da preskribitu gabeko zergaldirik zaharrenean (preskribitutako zergaldian irabazitakoa dela frogatzerik balego ere), ez baldin bada titulartasuna aitortutako errenten kontura dela, edo PFEZ ordaintzaile ez zuenak irabazi zuela. Preskribitu gabeko zergaldia 2013 aurrekoa bada, 2013koari esleituko zaio.

- Zehapena: zuritu gabeko irabazpideari dagokion kuota osoa, %150ean gehituta. Ez dira kontuan hartzen Zerga-Oinarri Negatiboak, ordaintzeke dauden konpentsazioak...

Aurkezteko epeak eta modua:

2014ko martxoaren 31 arte. Aurkezteko modua telematikoa baino ez da izango.

Mylmugan aholkularitza

Bi hitzaldi

- **MARTXOAREN 25EAN**, 19:30ean, Amaia KZn, Ana Azpiri Albisteguiaren eskutik. "La arquitectura de Luis Tolosa Amilibia".

- **APIRILAREN 4AN**, 19:30ean, Amaia KZn, Lauren Etxepareren eskutik. "Luis Tolosaren testuingurua eta arkitektura 1937tik 1950era"

Mugaz gaindiko aholkularitza

Mylmugan
 aholkulariak


Ficoba
 Iparralde
 hiribidea, 43.
 IRUN

t 943 537 720

f 943 116 014

m 649 014 096

www.mylmugan.com



Ezkerreko argazkian, Xabi Bengoetxea, Itxasne Sagarzazu, Irati Amunarriz, Iñaki Aizpiolea eta Ainhoa Arretxe.

Eskuinean, Itxasne Sagarzazu dinamizatzailea.

Gure Esku Dago

Gure Esku Dago dinamika joan den urtean abiatu zen, gizartearen alor guztietan herritarren erabakitzeko eskubidea gauzatzeko xedez. Ekainaren 8an aldarrikapen-ekintza handia burutuko da: Giza Katea Euskal Herrian. Bidasoko dinamizatzailetaldea proiektua gizarteratzeko lanari lotu zaio.

“Herritarren parte-hartzea politikan ezin da 4 urtean behin bozkatzera mugatu: parte-hartze aktiboa izan behar du, eta alor guztietan. Hori lortzeko mugitu behar dugu: gure esku dago”. Itxasne Sagarzazuk gaingiroki azaltzen duen helburua erdiesteko herri mugimendu honekin bat egin zuen, eta Bidasoko lantaldean dihardu. Argi utzi nahi du, lehenik eta behin, dinamika-aren izaera independentea dela, inongo alderdi politikorekin harremana ez duena, eta jomuga ez dela lurraldeta-

sunari buruzko aldarrikapena egitea.

Nazioarteko legeriak jasotzen duen erabakitzeko eskubide unibertsala aldarrikatzeaz harago, gauzateko bideak eraiki nahi ditu. “Ariketa demokratikoa proposatzen dugu, jendeak erabaki dezan hain hurbiletik ukitzen dituen hezkuntza eredu eta abortoa bezalako gaien inguruan”.

Ekarpenak bildu

Aniztasuna ezaugarri duten lantaldeak jada osatu dira eta aurerantzean uga-

ritu nahi dituzte ahalik eta ekarpen gehien biltzeko. “Orain bilatzen duguna da gizarteak barneratzea erabakitzeko eskubidea. Bigarren helburua jendearen aktibazioa da: parte-hartzaileek ibilbide-orri bat egingo lukete, zer eta nola erabaki nahi den zehaztuz”, azaldu du Itxasnek. Aldaketak legegintzako herri-ekimen baten bidez ezarriko lirateke. “Ez gaude sistemaren aurka, hobetu nahi dugu herritarrei protagonismo handiagoa emanez”.

Giza Katea

Erabakitzeko eskubidearen aldeko Giza Katea dinamika-aren ekimen handia izango da. Ekainaren 8an Durango eta Iruñea arteko 123 km-ak eskutik eskura elkarturik lotuko ditu. Horretarako 50.000 lagunen atxikimendua behar da. “Bidasoko 1.200 parte-hartzaile behar ditugu Arakiletik Itzara bitarteko tartean katea egiteko. Horixe erronka”.



Martxoaren 23an, giza katerako izen-emateak

Gure Esku Dago mugimenduaren Bidasoko dinamizatzaileek martxoaren hasieran hainbat jarduera antolatu zituzten Giza Katea ekimena gizarteratzeko. Martxoaren 23an egitarauko egun garrantzitsuenetako bat izango da, Giza Katerako izen-emate kanpaina abiatuko delako. Egun osoan zehar kalean jarriko diren mahaien bitartez txartelak banatuko zaizkie parte hartzea erabakitzen dutenei. Bidasoarrak Nafarroako Arakil eta Itza herrien arteko tartea eskutik oratuta lotu beharko dutenez, txartelean zehaztuko da zein metro egokitu zaion bakoitzari. Martxoaren 29an ekimen nazionala burutuko da Bilboko La Casillan.



- METODOA: K-STRETCH®
- METODOA: HIPOPRESIBOA®
- BERREZIKETA POSTURAL GLOBALA (RPG)
- PILATES
- PILATES HAURDUNENTZAT

www.kineesis.net

www.k-stretch.com

Arantzateko Jauna kalea, 10 behe. IRUN. 943 626 983 - 606 298 640



**Maialen López –
Iraupen-eskiko Espainiako txapelduna**



“Erakundeei eskatuko nieke hain ezagunak ez diren kirolak sustatzea”

21 urteko irundarra Espainiako txapeldun izendatu berri da, Benasquen, sprint eta distantzia luzeko (30km) probetan. Denboraldiari amaiera jartzeko, errelebo eta distantzia ertaineko lasterketetan parte hartuko du eskiatzaileak. Lau Munduko Txapelketetan parte hartu duen Zuzenbideko ikasle honen helburu nagusia egunero hobetzen jarraitzea da.

- Eskiarena odolean daramazula esan daiteke. Nolakoak izan ziren zure hastapenak?

Nire aita monitorea zen eta eski ikastaroak antolatzen zituen Irungo Mendizaleak elkartearekin batera. Gauzak horrela, bost bat urterekin eskiatzen ikasi nuen. Ondo ematen zitzaidanez, txapelketetan parte hartu eta nire lehendabiziko dominak irabazten hasi nintzen.

- Zerk erakarri zintuen eskiaren mundurantz?

Ezagutzen dudan edozein kirolerako erabat desberdina da. Erresistentzia handia eta teknika ona izatea ezinbestekoak dira. Gainera, bidaiatzeko eta leku berriak ezagutzeko aukera eskaintzen dizu.

- Iraupen-eskiari esker, munduko zein herrialde bisitatzeko aukera izan duzu?

Adibidez, aurten, Munduko Txapelketa Italian izan da. Aurreko urteetan, berriz, Italia, Estonia, Alemania eta Polonia herrialdeak ezagutzeko aukera izan dut. Orokorrean, Europa Erdialdeko estatuak dira

gehienbat bisitatzen ditugunak.

- Txoritxo batek esan didanez, badago atzeritar lehiakideak asko harritzen dituen gauza bat, ezta?

Bai. Gure aurkariak bi edo hiru orduko bidaiak dituzte txapelketak izaten diren lekutaraino. Gu, berriz, furgonetan hamasei bat orduko bidaiak egitera iritsi gara, eta horrek aho zabalik uzten ditu.

- Bestalde, neguko kirola izatean, nola antolatzen duzu zure urtea?

Maiatzetik irailera arte elurrik ez dagoenez, lehorreko entrenamendu gogorak egiten ditut. Aiako Harria, Jaizkibel eta inguruko mendietan korrika egiten dut, baita roller skia praktikatu ere. Irailetik aurrera, ordea, intentsitate eta abiadura handiagoko entrenamenduak antolatzen ditut. Abendutik martxora arte txapelketa garaia dut; beraz, ia egunero entrenatzen dut.

- Kirol honi hainbeste ordu eskainita, zaila al da ikasketentzat edota beste ekimenentzat denbora ateratzea?



1.- Maialen Lopez Irungo San Juan Harria plazan.

2.- 2012ko Espainiako Lehiaketan.

3.- 2102an Espainiako Lehiaketa. Erreleboetako podiuma.

Bai, zaila da; baina zure burua ondo antolatuz gero eta orduak ondo banatuz gero, dena egin dezakezu. Ni, adibidez, Zuzenbide ikasketetako azken urtean nago eta, nahiz eta azkenaldian txapelketak direla eta nahikoa faltatu, egunean noa.

- Gero eta dirulaguntza gutxiago dauden kirol munduan, zer eskatuko zenieke erakundeei?

Hain ezagunak ez diren kirolak sustatzea eskatuko nieke, eta parte-hartzeak behera ez egitea. Gizartearen gutxiengo batek praktikatzeko dituen kirolak ez ahaztea behintzat; izan ere, gurea kirol desberdina da eta gutxiengoko baliabide batzuk izanez gero, emaitza onak lortzen dituen jende gehiago egon daiteke.

- Hurrengo denboraldira begira, zein dira zure erronkak?

Hobetzen jarraitzea da nire helburu nagusia. Hemendik lau urtera Neguko Joko Olinpikoak izango dira eta bertan egotea ametsa izango zen niretzat. Nahiko zaila da, baina gutxiengoko emaitzak lortzeko gogor lan egingo dut.

Emakumezkoen Mariño Kirol Taldea, igoeraren bila



Senior taldeko neskek gogor heldu dira sailkapeneko lehendabiziko postura eta, aurten, liga irabazteko aukera ugari dituzte. Hala ere, Gasteizko Neskek bigarren sailkatuari ez diote gainerik begirik kentzen. Gizonezkoen nagusitasuna bistakoa den kirol munduan, emakume futbolarien indarra eta kalitatea argi uzteko, gogor lan egiten dute egunero Mariño neskek.

Ugaldeko futbol zelaian entrenatu ohi dute Mariño Kirol Taldeko neska-mutiek. Talde guztiek ez bezala, irundarrak gizonezkoen eta emakumezkoen talde kopuru berdina du. Emakumezkoen sailko koordinatzaile eta taldeko idazkari Angel Perezentzat, "futboleko nesken eta mutilen arteko berdintasuna lortzeko ezinbestekoa da bi sailentzat azpiegitura berdina izatea". Futbolak gero eta neska gehiago erakartzen du; hala ere, hauek lehendabiziko pausoa ematea ez da batere erraza. "Gure futbol eskolan 100 bat mutil ditugu, eta hiruzpalau neska baino ez. Hala ere, hazten doazen heinean, neskek alde batera uzten dituzte aurreiritziak eta guregana hurbiltzen dira".

Balioen helaraztea

Adibidez, Nekane Quiñonesek, balio anitzeko jokalaria, oso gogoko izan du betidanik futbola. "Jende ugari ezagutzen duzu eta laguntasuna eta solidaritatea bezalako balioak erakusten dizkizu". Nekane ahizpa bikia du eta tal-

deko atezaina da. Nahiz eta ahizpen arteko ohiko liskarrak eduki, "berarekin jokatzeko oso berezia da".

Melodi Aguilar ere eskarmentu handiko jokalaria da. Kategorien arteko banaketa ezak markatu zituen jokalaria gazte honen hastapenak; hala ere, oso oroitzapen politak ditu. "Garai hartan, nire adina eta indarra bikoizten zuten taldekideak nituen. Hala ere, haien laguntzari esker esperientzia eskuratu eta nigan sinisten ikasi nuen". Gaur egun, berriz, "taldekide gazte berriei ahal dudana laguntza gehien ematen saiatzen naiz, beraien onena eman dezaten".

Igoera helburu

Senior taldeak urteak daramatza nazional mailara igo nahian eta, nahiz eta helburua batere erraza ez izan, aurten egoera alde dute Mariño neskek. Carmelo Perez "Melo" entrenatzaile berriak nesken jarrera bikaina azpimarratzen du. "Lan fisiko ugari egiteko ideia-ekin etorri nintzen eta primeran

erantzun dute. Oso langileak dira eta entrenamendu eta partidu bakoitzean bihotz eta arima jartzen dute". Aurten igoera lortzea da helburu nagusia Nahikari Anton kapitainarentzat, eta, "nahiz eta oraindik pare bat norgehiagoka geratzen zaizkigun, gure jokorik onena erakutsiko dugu, hainbestetan amestu dugun igoera lortzeko".

Desberdintasunak alde batera

Nahiz eta azken urteotan egoera hobetu, generoen artean erabateko berdintasuna lortzea urrun dago oraindik. Melodiren ustez, ez dute mutilei eskaintzen zaien babes bera jasotzen. "Igotzekotan gaude eta gu ikustera etorri ohi diren lagun eta senitartekoei bakarrik dute horren berri. Hala ere, egoerak hobera egitea espero dut". Etorkizunari dagokionez, emakumezkoen sailko arrakastak jarraitzea eta hainbestetan amestutako igoera lortzea dira taldeko arduradunen helburu nagusiak.

- 1.- Senior taldeko neskek, Ugaldeko futbol zelaian entrenamendu batean.
- 2.- Mariño neskek, Loret Cup txapelketan.
- 3.- Mariño neskek, euren jokorik onena erakusten.
- 4.- Mariño, Zarautzen aurka jokatzen.

Euskal sukaldaritzaren iragana, oraina eta etorkizuna.

Gaurko menua: hitzen sukaldaritza

Hilean behin, Iruneroren tarte honetara, euskal sukaldaritzaren historia gaingiroki eta hitz lauz ekarriko dugu. Oraingoan hastapenak izango ditugu hizpide, Santimamiñeko kobazuloetatik hasita.

Oraingoan menu berri eta berezi batekin gatoz: hitzen sukaldaritza. Hilean behin ez dizuegu barazki, arrain, ezta haragirik ere duten platerik ekarriko; hitzek osatutako platerekin osatuko dugu gure menu proposamen berri eta berezi hau.

Zer nolako menua prestatu dugu? Hiru atal garrantzitsu izango ditu menuak: sarrerakoetan, euskal sukaldaritzaren iragana aztertuko dugu; plater nagusietan, gaur egunera etorri eta egungo egoera ezagutuko dugu; azkenburukoetan, etorkizunera begira jarri eta egon daitezkeen erronka eta helburuak argitzen saiatuko gara. Hilean behin izango dugu hitzen sukaldaritzaren menu honetako mokadutxoak pixkanaka-pixkanaka dastatzeko aukera. Espero dut denboran egingo dugun bidaiatzeko eta gure sukaldaritza proposamen berriaz gozatzea, guk prestatzean egin dugun bezainbeste. Mahaian eseri, eroso jarri eta gozatu hitzen sukaldari-

tzarekin. On egin!

1. Kapituluak: nondik gatoz?

Ezin dugu ukatu euskal sukaldaritzak oinarri sendo eta indartsu bat duela gure herriaren kultura eta tradizioan. Historia luzeko herria garen heinean, gure sukaldaritzak ere ibilbide luzea du; horren erakusgarri dugu lehen aipamena Santimamiñeko kobetan aurkitzen dugula.

Bertan aurkitutako lehen giza aztarnen artean, hainbat elikagaienak ere bazeuden: hainbat azterketaren ondoren ondorioztatu zuten itsaskiak egosi egiten zituztela jan aurretik, zopa moduko bat eginez.

Baina gizakia garatzen joan zen heinean, elikagaiak eta hauek prestatzeko teknika berriak ezagutzen joan zen; adibidez: gizakiaren biziraupen behararen ondorioz historiaurrean garatu ziren Euskal Herrian ehiza, arrantza, abeltzaintza eta nekazaritza.



Erromatarrekin batera etorri zen lehen iraultza garrantzitsua euskal sukaldaritzan.

Erromatarrekin batera etorri zen lehen iraultza garrantzitsua euskal sukaldaritzan. Elikagai berriak ekartzeaz gain, erromatarren ekarpen garrantzitsuena ordura arte euskaldunek erabiltzen zituzten produktuen optimizazioa izan zen, teknika berri eta sukaldeko-tresneria berriarekin batera.

Horra hitzen sukaldaritzan lehen mokadutxoak. Datoren hilabetean jarraituko dugu. Bitartean, gozatu gastronomiarekin, gozatu sukaldaritzarekin eta gozatu bizitzarekin, gastronomia, arteaz gain, festa bat ere baldelako. On egin!

GASTROFESTA

Oraitz Garcia
gastrofesta.com

Jostamendi



www.jostamendi.com

- Jostailuak
- Mozorroak
- Motxilak

JOSTAILU GUZTIAK:
MODAKOAK ETA KLASIKOAK
SALNEURRI MERKEENAK

Prim. 59. Tel: 943 455300 Donostia
Letxunbarro, 86. Tel: 943 457510 Irun

- Puerikultura ttikia
- Pasatzeko siltitak
- Sehaskak
- Haur kotxeak

GIPUZKOAKO
ERAKUSKETARIK HANDIENA

Easo. 51. Tel: 943 470244 Donostia
Artaleku, 3. Tel: 943 638223 Irun



Zure jaioberria
zaintzen dugu

Jak eta Kotxe telegidatua



Asier Zabala Garcia

BAKAILAOA DASTA EZAZU



Hirubide BHI



INTERNETEKO LAGUN BERRIA

Duela hilabete, gutxi gora behera, irakasleek berri interesgarri bat eman ziguten. Norvegiako eskola batekin hitz egin behar genuen e-mailen bitartez. Denok pixka bat aztoratu ginen albistea entzundakoan, ezin genuen sinetsi! Inoiz entzun gabeko eskola bateko ikasleekin hitz egingo genuen. Hasieran denak harrotu ginen, arazo latz bat genuelako: ez genekien zein hizkuntzatan komunikatuko ginen, ezta haien korreo elektronikoa ere. Zenbait aste igaro ziren eta gu oraindik arazo berarekin jarraitu genuen.

Naturako klasean geunden. Gure irakaslea zerbait irakasten ari zitzaigun. Bat-batean ingeleseko irakaslea sartu eta hau esan zigun:

- E-mail batzuk iritsi zaizkizue zuen helbide elektronikotara, ingelesez daude eta zuen

lagun norvegiarrek idatzi dituzte.

Denok harrিতuta geratu ginen. Klasea bukatzean aulkia jaso eta ziztu bizian iritsi ginen gure etxeetara. Guztiok helbidea ireki eta e-mail bat aurkitu genuen Brannfjell izeneko eskola batekoa. Niri Wilde izeneko neska batek hitz egin zidan bere ohiturei buruz, baita non bizi zen ere. Harriturik geratu nintzen bere ingeles maila ikustera-koan, bikaina baitzen.

Hilabete batzuk daramatzagu elkarrekin hitz egiten. Nik Irun hiriarri buruz hitz egiten diot, baita Euskal Herriko tradizioei buruz. Berak, ordea, bere gustuei buruz hitz egiten dit. Batzuetan asko kosta zait bere e-mail luzeak erantzutea, baina... irakasleek ideia bikaina izan dutela pentsatzen dut.

Iñigo Moledo Pulido. 3. maila

PINTEREST MAITAZERA
ZARAMATZATEN 5 ARRAZOIAK

Pinterest "kuttunen album" moduko bat da, oso ikusgarria, lagunekin eta zure interes berberak dituztenekin elkarbana dezakezuna. Sarea berez publikoa bada ere, erabilera pertso-

nal samarra da, zure kuttunak "pineatzen" ahal dituzunez gero: barrea eragiten dizun argazkia, zientzia-fikziozkoa dirudien azken berritasun teknologikoei buruzko artikulua, modan peto-peto dabilena edota amonaren errezetak.

Hauexek dira maitemindu gaituzten 5 arrazoiak, zu ere Pinterest maitatzera eramango zaituztenak:

1. Ikusizkoaren garaian bizi gara. Pinterest da, sare sozial guztien artean, ikusgarriena: ederra, atsegina, diseinuzkoa, koloreen orekak nahiz ezta ditudenak.

2. "Markagailu" guztiak txukun ikusteko era bat da. Internet erabiltzaileak bazarete, ziur zuen kuttunen barra gainezka duzuela, Urteazarrean Puerta del Sol plaza baino beteagoa.

3. Uste ez bezalako inspirazioa, etxeko antolamendua hobetzeko aholkuak, zeure garbikariak sortzeko errezetak, Rio de Janeiro bisitatzeko lojamendurik onena... Hautatu zure gaia, egizu bilaketa bat eta besotan eraman zaitzatekela...

4. Ekimen aipagarriak dituzte. Adibidez, Mandela hil zenean, hasierako azalean sarbide zuzena jarri zuten munduko lider hark inspiratutako "pins" delakoetara iristeko.

5. Zoragarria da hartan nabigatzea, bai ordenagailuan, bai telefono edo tabletean... Aski da hatz bat irristatzea gauza bat gustatzen zaizula esateko, zeure sailetara eramateko edo nahi duzunari bidaltzeko (plataforman edo e-mailez).

Zeren zain zaude? Pinterest-en esaten duten bezala, sartu eta planeatu zure bizitzako bidaia.

Pinterestek maiteminduko zaitu

Olatz Goikoetxea

3yMedia Comunicación Digitaleko publizista



zure enpresari
internetetik zabalitzen
laguntzen diogu

- marketing online
- bideo online
- web orriak
- sare sozialak
- formakuntza



www.3yMedia.net

Teknologia berriak

Irun Factoryren ardatz

Irungo sormenearen fabrika, teknologia berrien inguruko jarduerak izango dira datozen asteotako eskaintzaren ardatza. Erakusketak, tailerrak eta entzunaldiak. Batzuk, helduei zuzenduak; besteak, haurrei.

Jaime de los Rios artistaren erakusketa zabalik egongo da apirilaren 18ra arte Irun Factoryn. Bertan, muntaketa eta instalazio zenbait ikusgai dira, mugimendurekin, argiarekin, soinuarekin eta teknologia berriekin jokatzeko dutenak, eta elkartzean zirrara bereziak sortzen dituzte. Erakusketa dela eta, zenbait ekintza prestatu dira. Lehena, egilearekin topaketa bat da, apirilaren 11n, 19:00etan burutuko dena. Bestalde, zenbait tailer antolatu dira, guztiak ere teknologia berrien eta beraiek artean duten aplikazioaren ingurukoak.

Helduentzako tailerrak

Bideo Mapping, martxoaren 17an: Mappina animazioaren munduko teknika berria da. Software espezifikoa edukiz gero, gaur egun 2Dko eta 3Dko irudiak hiru dimentsioko edozein azaleratan proiektu daitezke.

Arduino: atariko ezagupenak. Martxoak 18. Helburua oinarritzko ezagupen hauek jorratzea da: Arduino plataforma, elektronikak eta sistema elkarrengaren diseinurako programazioa Arduino hizkuntzan.

Processing: atariko ezagupenak. Martxoak 19. Helburua, proiektua sortzeko kodea sartzeko, irakurtzeko eta aldatzeko ikastea da.

Haurrentzako tailerrak

Apirilak 14. Elektronika sinplea Open Source motako hardwarearekin. Nork bere musika-tresna sortuko du. Elektronikari zein kondukzioari buruzko oinarritzko ezagupenak.



Apirilak 15. Robotika Open Source motako hardwarearekin: **Sigueluz.** Arduinorako Scratcharekin lan egingo da. UNO robota sortzea da xedea.

Apirilak 16. Toy Bending. Open source hardwareari eta elektronikari buruzko oinarritzko ezagupenak. Nork bere jostailuak *hackeatzen* ikasiko du.

Apirilak 17. Esperimentuak plastilina konduktiboarekin. Elektronikari buruzko oinarritzko ezagupenak. Plastilina konduktiboarekin, normalarekin eta hainbat osagai elektronikorekin esperimendatzeko eta etxera eramateko.

6 eta 12 urte bitarteko haurrentzat.

Ordua: 16:00etatik 18:00etara.

Izena emateko: 617 238 062ra deitu edo mezu bat bidali helbide honetara: irunfactory@irun.org

Erakusketa

Martxoaren 28tik apirilaren 4ra Irun Factoryn Laurentx Etxemendiren erakusketa zabalik egongo da. Asian zehar egindako ibilbide batean jasotako hotsak eta hots horien argazkiak biltzen ditu. Gainera, martxoaren 28an eta apirilaren 4an, 20:00etan, egileak entzunaldi bat eskainiko du, hotsak interpretatzeko.

Aretoan bertan, argitaratu den liburua kontsultagai izango da.



- Indoor zikloa
- Tonifikazioa
- Pilates
- Step
- Zumba
- Muskulazioa
- Karatea: haurrak/helduak
- Tai chi
- Defentsa pertsonala
- Kick boxing
- Brasiliar Jiu Jitsu

Bazkide
nahiz bazkide
ez direnentzat
MASAJEA



Lehiaketak

- LEIOAKO XIV. POP ROCK LEHIAKETA

Baldintzak: Taldean 18 urtetik beherakorik izanez gero, guraso edo tutorearen baimena bete behar da.

Epea: Maketak edo CDak entregatzeko azken eguna apirilaren 11 izango da

Nora bidali: Hellbide hone-

Gaia: Gazteen lan-prekarietatea eta aurre egiteko proposamenak. Sari nagusia: 1.000 €!

Epea: Maiatzak 30.

www.egk.org



Lana

- PORT AVENTURAN LAN EGIN NAHI DUZU?

Parkeak heldu den sasoirako sukaldariak, harreragileak irudi operadoreak eta laguntzaileak behar ditu. Parkeak apirilaren 11n ateak irekiko ditu.



tara posta ziurtatuaren bidez: Leioako Pop Rock Lehiaketa. Aterpe Leioa Gaztegunea. Aldapabarrena, 2. 48940 Leioa (Bizkaia)

Informazioa: 944 055 850

gazte@leioa.net

- RECACCIONA. GAZTEOK ENPLEGU DUINA! izeneko lehiaketa deitu du Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak. Izena eman nahi duzu? Gu-txienez bi pertsonak osatutako taldea era ezazu, gehienez 4 minutuko bideoa egin eta bidaliezaguzu!!

Urantz Scoot, Skate & Kendamak

Jardueraren helburua:

- Skate parkea hobeto erabiltzen ikastea.
- Scooterrak montatzeko eta desmontatzeko triki-mailuak.
- Txikientzat: kendamen erabilera.

Non: Urantz pilotalekuan

Noiz: Apirilaren 6an eta 13an

Sarrera: 3 €. Laguntzailea, doan.



Udako jarduerak Irunen

Irungo Udalak gazteentzako udako jardueren zerrenda argitaratu du.

PARTE HARTU eta GOZATU!!!

- Udaleku Irekiak (ordu batzuk)
- Udako Udalekuak
- Kirol Ekintzak
- Ikastaroak
- Hizkuntzak atzerrian
- Auzolandegiak



Gazte-Txartela, orain errazago

Eusko Jaurlaritzak etxera bidaliko du.

- Eskaera, Internetez edo IGazte bulegoan.
- 30 urte bete arte izango duzu, berri beharrik gabe.
- Jada baldin duzu, berria etxean jasoko duzu.



Tailerrak El Espazio

MARTXOAK 18, 10:00 - 12:00 Lan aholkularitza langileentzat eta langabetuentzat.

MARTXOAK 21, 12:00 - 14:00 Enplegua administrazio publikoan. Kontratu publikoak eta oposizioak.

MARTXOAK 24, 9:30 - 12:30 Enplegua-

ren bilaketa eraginkorra egiteko tresnak. CV eta aurkezpen gutuna.

MARTXOAK 25, 9:00 - 11:00 Enpresak sortzeko irizpideak. 9:30 - 12:00 Enplegurako elkarrizketa.

Doako tailerrak.



HARREMANAK

- 943 633160

- elespazio@bidasoa-activa.com

MARTXOAK 26, 9:30 - 12:30 Lan elkarrizketa arrakastaz gainditzea

Irungo
euskarazko
hamabostekaria

Irunero

Irunero non eskura dezaket?

San Juan

Gaztelumendi
Manolo
Sargia
Udal Liburutegia
Gazte Informazio
Bulegoa
Corner
Orrua
Fotokop
AEK

Nafarroa hiribidea

Kutxa
Ogi Berri
Hawai
Erauskin

Santiago

Txingudiko

Zerbitzuak

Toma Pan y Moja
Swing
El Bule
Argitze zentroa

Urdanibia plaza

Migel taberna
Ospitale zaharra
Udal Euskaltegia
Ama Xantalen egoitza
Bainu (Urantz kalea)

Dunboa/Palmera - Montero/Arbes

Osasun Zentroa
Ogi Berru
Tahona
Zura

Anetxe

La Agricola
Dunboa LHI
Biribi
Toki Alai HH

Behobia/Azken Portu

Toki Alai BHI
(Gazteluzahar)

Kolon ibilbidea eta inguruak

BBVA
Kutxa
Anbulatorioa
(Gipuzkoa hiribidea)
Virginia kafetegia
Edurne kafetegia
Erauskin

(Luis Mariano)

Sirimiri
Turismo Bulegoa
SAC-HAZ
Merkairun
Luis Mariano
pentsiodunen etxea
Euskadiko Kutxa
Santander bankua

San Migel

Tabisa
Caser egoitza
Urantz azoka
Gizarte
Segurantzaren
Institutua
LANBIDE

BBVA

Santander bankua
Sabadell Bankua
Euskadiko Kutxa
Kutxa
Rural Kutxa
Loteria administrazioa

Antzaran/ Anaka

Kutxa
Mariño
Washington taberna
Anaka Berri erretegia

Puiana

Tahona
Bidasoako Ospitalea
Jostamendi

Txingudi Ikastola

Larraundi

Larrarte harategia
Toma Pan y Moja
Pedro arraindegia
Eguzkitza ikastetxea

Elizatxo/Katea /Belaskoenea

Martindozenea
gaztelekua
Elatzeta ikastetxea
Ongi Etorri taberna
Super Larrea
Belaskoenea
ikastetxea
Café Irun

**Martxoaren 19an**Zinea
Amaia KZn19:30ean, Albert Camusi buruzko egitarauaren barruan, *Les tontons flingueurs* pelikula proiektatuko da. Sarrera: Doan.**Martxoaren 19an**Ipuin kontalaria
Udal liburutegian17:30ean, *Ipuinak mara-mara*. Haurrentzako.**Apirilaren 4ra arte**

Erakusketak

Udal Liburutegian

Albert Camusen mendeurrenaren oroitzapenezko erakusketa. Sarrera doan.

Martxoaren 21eanZinea
Amaia KZn20:00etan, Zinea eta Gastronomia zikloaren barruan, Jean-Pierre Améris zuzendariaren *Tímidos anónimos* (2010) filma proiektatuko da. Sarrera: 5,10 €.**Martxoaren 23ra arte**

Erakusketa

Laboral Kutxan

Argizaiola Saria irabazi duten argazkiak eta parte hartu duten lan hau-

tuen sorta bat erakutsiko dira. Asteleheneetik larunbatera: 19:30-21:00. Igandeetan: 12:00-13:30.

Martxoaren 31ra arte

Erakusketa

Atrezzo dekorazio dendan

Marijo Ortiz Miguel margolariaren lanak.

Martxoaren 20an

Zinemaldia

Kabigorri

19:30ean, VIII. Ekozinemaldiaren barruan, Iguazuko (Brasil) zentral hidroelektrikoak kaltetutakoak.

Martxoaren 21ean

Gaztetxoentzako jolasak

Martindozenean

18:00etatik 19:00etara, NiNi tailerrak. 12 eta 15 urte bitartekoentzako jolasak: petanka. 19:15ean, 16-17 urtekoentzako saioa. Doan.

**Martxoaren 21etik 23ra**

Azoka

Ficoban

Antzinako objektuen azoka. Ostira-lean 17:00etan irekiko da. Enkante handia: larunbatean, hilak 22. Sarrera: 3 €.

Martxoaren 22an

Genealogia

Meakan

10:00etatik 12:00etara, genealogia tailerra Meakako Auzo Elkarteak.

Martxoaren 23an

Mendi txangoa

Urdazubi-Arizkun mendi txangoa, Irungo Mendizaleek antolatuta.

irungomendizaleak.com**Martxoaren 25ean**

Literatur solasaldia

Diasso Museoa

19:30ean. Obra: Albert Camusen *Caligula*. Dinamiza-tzailea: Mertxe Tranche. Toki mugatua. Izen-emaitea: 2 € (kafea eta pastak barne).www.oiasso.com 943 63 93 53.**Martxoaren 25tik apirilaren 6ra**

Erakusketa

Laboral Kutxan

Nicolas Guerendiain Errepublikar



Elkarteak antolatuta.

Martxoaren 26an

Tailerra

Argoiak Elkarteak

17:00etan, sukaldaritza tailerra elkarteak (Uztapide Bertsolaria ka-lean).

Martxoaren 26an

Informazio saioa

Ficoban

19:00etan, Deustuko Unibertsitatearen informazio saioa, batxilergoko ikasleei zuzendua.

Martxoaren 28an

Zinea

Diasso Museoa

19:30ean, Zinea eta Sukaldaritza zikloa. *Entre les bras*. Sartzeko gonbidapena, museoan eskuragai.**Martxoaren 29an**

Euskal dantzak

Amaia KZn

18:00etan, Adaxka Dantza Taldea.

**Martxoaren 30ean**

Ibilaldia

9:00etan, bide berdetik Lesaka-Donztebe ibilaldia. Bazkaria Donzteben. Jacobi Elkarteak antolatuta.

DANTZA
Marta Carrasco

LANA: B. Flowers

NOIZ: Martxoak 22

ORDUA: 20:00etan

TOKIA: Amaia KZn

SARRERA orokorra: 7,10 €

Dantzariak: Marta Carrasco, Anna Coll eta Majo Cordonet

Marta Carrascok 2013an sortu zuen bere ibilbidearen hamargarren ikuskizuna. Loreen eta emakumearen arteko paralelismoa begi-bistakoa eta lurrintsua da. Aitzakiarik gabe, baina edertasunetik, harmoniatik, konplizitatetik edo loreen arteko lehiatik harago, bizirik irauteaz hitz egiten da, gizakiak baztertzeari eta tratatu txarrak emateari uko egiteaz, eta, azken batean, izakiaz hitz egiten da. Ikuskizun freskoa, hipnotizatzailea eta arina, poliki dastatzekoa eta errepikatzeko gogoa ematen duena.

IRUN ZUZENEAN**Martxoak 21**

Tunk aretoan, 21:00etan, Los Coronas, Frank eta Banda Crucero.

Sarrerak: aldezturik erosita, 12 €; leihatillean, 15€.

Martxoak 23

Bhuda tabernan, 19:30ean, Yemamah taldearen eskutik. Sarrera: doan.

**Planetaren ordua**

Irungo Udalak bat egingo du "Planetaren ordua" ekimenarekin.

Deialdia martxoaren 29rako egin da, gaueko 20:30etik

21:30era, eraikin publikoetako eta partikularretako argiak itzaltzeko. Klimaren Aldaketaren aurkako borroka posible dela ikustarazteko.

Hotel A Talaiak
JATEIXEA

ARITZ ONDO 49. 20305 VENTAS IRUN

Tel. 943 635 518 jateixea

Tel. 943 629 433 hotela ***

info@hoteltalalaya.com

www.hoteltalalaya.com

Lehen Jaunartzea ospatzeko menu bereziak

30 €tik
45 €ra
bitartekoak

Haurrentzako
menua: 20 €

BEZ eta
edariak
barne



La agrícola
J A T E T X E A

Eguneko menuak, asteburukoak, karta,
mota guztietako ospakizunak

Alzukaiatz, 1. IRUN Tel: 943 244 118